



Sociedad



Sagardotegietako bezeroak: %80 ohikoak, %20 turistak



Euskadiko sagardotegietara doazenen profil soziodemografikoa eta motibazioak ezagutzeko azterlana egin du Basquetour elkarte publikoak / LOBO ALTUNA

Eusko Jaurlaritzako Basquetour elkarte publikoak azterketa egin zuen iaz bi garaitan: txotx denboraldian eta uda sasoian

DV Donostia

Domingo, 17 febrero 2019, 09:03



Euskadiko sagardotegietara doazenen profil soziodemografikoa eta motibazioak ezagutzeko azterlana egin zuen iazko txotx denboraldian eta uda sasoian Eusko Jaurlaritzako Basquetour elkarte publikoak. Hona ondorioetako bat: **gehienak** (%80 inguru) **ohiko bezeroak** dira, eta, turistak, aldiz, %20. Azken hauen bereizgarria da gaua bertan eman beharra, %60 ez baita Euskadin bizi. Horrelako bisitariak asteburuko bidaia egin ohi dute eta, sagardotegira joatea, inguruko beste leku batzuetara bisita edo beste baliabide turistiko batzuk ere barneratzen dituen esperientzia baten parte da.

Ohiko bezeroei dagokienez, normalean **taldeko ekimena** izaten da, eta batez beste 10,5 laguneko taldea izan ohi da.

Uda sasoian bi profil antzematen dira. Batetik, bere ohiko bizilekutik kanpora ostatua hartzen duten bezeroak (%66). Bezero mota honek, Euskadiko beste baliabide bat gehiago gisa bisitatzen ditu sagardotegiak. **Euskaditik kanpo bizi diren bezeroak** dira nagusiki. Eta bigarren profila (%33) 'betiko bezeroena' da. Horrelako lagunak Euskadin bizi dira, batik bat Donostia aldean, eta udan ez ezik txotx garaian ere agertzen dira sagardotegietara.

Bezeroen balorazioa ere jakin nahi izan du Eusko Jaurlaritzako Basquetour elkarte publikoak. Txotx garaiko azken sagardotegiko esperientziaren balorazioa egiteko eskatu zaienean, bezeroek honela erantzun dute: %37k 9-10 puntu eman dizkio; %55ek, 7-8 puntu; %6k, 5-6 puntu; eta %2k, 0-4 puntu. Beraz, batez besteko nota 8,1 izan da.

Uda sasoiko azken sagardotegiko **esperientziari** dagokionez, hauek dira emaitzak: bezeroen %40k eman du 9-10 puntu; %55ek, 7-8 puntu; %3k, 5-6 puntu; eta %2k 0-4 puntu. Sasoi honetako bisitarien puntuazioa, batez beste, 8,25ekoa izan da.

Azterketa honen berri, xehetasun gehiagoz, 'Sagardoaren Lurraldea' urtekariak eman du, duela egun gutxi.



TEMAS Euskera

La mejor selección de noticias en tu mail

Recibe las principales noticias, análisis e historias apuntándote a nuestras newsletters

Apúntate

Lo + leído

El Diario Vasco

Sociedad

[Top 50](#)

1 Hallan muerta en su casa a una mujer cuyo marido fallece en un accidente de tráfico en Cantabria

2 Vivienda flexibiliza la ayuda a la emancipación de jóvenes tras denegar la mitad de solicitudes

3 Esta es la mejor táctica para adquirir más masa muscular

4 Hallan asesinada a una mujer en Cantabria al ir a avisarla de la muerte de su marido en un accidente

5 La DGT sancionará más a los motoristas sin casco y les obligará a llevar guantes

0 Comentarios 

Noticias relacionadas

Ehun urtetik gorakoen hazkundeak, aurrera

Egoitzetako 116 zaintzailek lortu dute euskara B2 mailaren aitortza

Azken txanpa abiatu dute EuskarAbenturako espedizioko gazteek

Patrocinada

CONTENIDO PATROCINADO

Enlaces Patrocinados por Taboola

Un experto revela: "Es como un limpiador para su intestino"

Nutravia

Este consejo olvidado elimina los ronquidos y la apnea del sueño

Salud y Bienestar

Aprovecha que estás de vacaciones para alquilar tu casa

Booking.com

MÁS NOTICIAS

por Taboola

Sarkozy da el estirón a los 64

Los cambios que te vas a encontrar si compras pan a partir de hoy

Esta es la persona más lista del mundo y hoy es su cumpleaños

Fotos



📹 El descanso de la cigüeña

📹 Contra el calor, fruta helada



📹 Los insectos saltan al plato

📹 Las mejores imágenes de animales de la semana

Vídeos



01:58



02:10

📹 Juan de Alcega jostuna

📹 Dos detenidas por estafar a 70 personas
480.000 euros



01:54



04:47

📹 Círoc x Moschino celebra el verano más
desenfadado en Ibiza con Jeremy Scott

📹 Continúan las labores de extinción de
incendios de Portugal

© Sociedad Vascongada de Publicaciones, S.A.

Domicilio social en Camino de Portuetxe, 2 San Sebastián 20018



[Contactar](#) | [Aviso legal](#) | [Política de privacidad](#) | [Publicidad](#) | [Mapa web](#) | [Política de cookies](#)